


**EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2010EKO IRAILA**

## Euskal AEko eraikuntzaren kostuak %0,3 jaitsi ziren 2010eko irailean aurreko hilaren aldean

**Azken hamabi hilabeteetan (2010eko iraila, 2009koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %0,5 gehitu dira**

2010eko irailean, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea %0,3 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,5 igo zen, EUSTATen datuen arabera.

**Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2009**



(\*) Gehikuntza irailako urte artekoa da

Iturria: EUSTAT. Eraikuntzako kostuen indizea

2010eko irailean, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,4 jaitsi dira.

Irailean Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek beherantzako bilakaera izan zuten lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,4ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %0,3koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,3 jaitsi ziren; Obra zibilekoak, berriz, %2,8 igo.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Petrolio-fintzea (%19,1), Metalurgia (%14,9), Energia elektrikoa eta gasa (%4,5) eta Material elektrikoa (%2,0) nabarmentzen dira. Berriz, urteko prezioetan (2010eko iraila 2009koaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Ez-metalezko mineralak (%-4,2), Metalezko artikulak (%-0,5) eta Ez-metalezko industria (%-0,1).

**Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea 2010eko iraila. Behin-behineko datuak**

| GOIBURUAK                  | INDIZEA<br>2005 = 100 Oinarria | GEHIKUNTZAREN %        |                                   |                           |
|----------------------------|--------------------------------|------------------------|-----------------------------------|---------------------------|
|                            |                                | Aurreko hilaren aldean | Aurreko urteko hil beraren aldean | Aurreko abenduaren aldean |
| <b>KOSTUA GUZTIRA</b>      | <b>116,8</b>                   | <b>-0,3</b>            | <b>0,5</b>                        | <b>0,6</b>                |
| ERAIKINAK                  | 116,4                          | -0,3                   | 0,1                               | 0,2                       |
| OBRA ZIBILA                | 118,4                          | -0,2                   | 2,4                               | 2,0                       |
| <b>LEHENGAIEN KOSTUA</b>   | <b>115,7</b>                   | <b>-0,4</b>            | <b>0,3</b>                        | <b>0,3</b>                |
| ERAIKINAK                  | 115,3                          | -0,4                   | -0,3                              | -0,2                      |
| OBRA ZIBILA                | 117,4                          | -0,3                   | 2,8                               | 2,3                       |
| <b>LAN-ESKUAREN KOSTUA</b> | <b>121,1</b>                   | <b>0,0</b>             | <b>1,4</b>                        | <b>1,4</b>                |

Iturria: EUSTAT

**Argibide gehiago nahi izanez gero:**

[Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua